zuzendariari

(0034) 943 300 222

zuzendariari@egunkaria.com

Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Itoizko tapoia ken dezatela

Julio Villanueva (*Itoizko solidarioak taldeko kidea*)

Itoizko urtegia betetzeko proben hasiera espainiar eta nafar gobernuen ohiko zabarkeria mailaren erakusle izan da. Izan ere, Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidearen proiektua hobekien islatzen dituen hitza horixe baita: zabarkeria. Zabarkeria ekonomikoa, urte aunitzez nafar eta estatuaren ondasuna —gurea, alegia— hutsarazi duena, azpiegitura hau guztiz xahutzailea delako. Zabarkeria juridikoa, Naturguneen Foru Legea aldatzean Nafarroako Gobernuak erakutsitako boterekeriaren inguruan estatu espainiarraren botere judizialaren ustezko neutraltasuna agerian utzi duena. Ustelkeriazko zabarkeria, etengabeko irregulartasunengatik eta eurena ez den diruaz baliatzeagatik beste bultzatzaile nagusiak ipurdia agerian utzi dituena. Eta, batez ere, zabarkeria tekniko itzela, egoki ez den alderdi batean presa eraiki dutelako eta milaka pertsona arriskuan jarri.

Idazki honen hasieran erraten genuen bezalaxe, betetze proben hasiera proiektuaren inguruko zabarkeria kronikoaren segida baino ez da izan.

Neguko lehen urtze handiak, lurpeko ur emarien itxialditik bost egunera, urtegia euren eskuetatik irristarazi du, herriak, pertsonak eta aziendak arriskuan jarriz, kontrolik gabeko urtegia dela kausa. Gainera, eremuan suertatzen ari diren lubizi batzuk direla eta, ikaratuta gaude, ospe handiko teknikariek iragarritako desmasia aitzinetik ikusarazten dutelako.

Zabarkeria pila honen inguruan, administrazioak ez ikusi eta ez entzunarena egiteko politikarekin temati segitzen du. Ikusten ari garenez, bost axola zaie milaka lagunen bizia arriskuan jartzea.

Hala ere, herri mehatxatutako auzokideek erraten duten gisan, gu ere piztia gerarazteko garaiz gaude. Baina, horretarako, behar-beharrezkoa dugu mugitzea eta indar guztiz borrokatzea.

Hori guztia dela eta, hemendik aitzina Itoizko urtegia betetzearen kontrako ekimen eta mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egiten dugu, mehatxatutako herritarren batzordeak deituta bihar Agoitzen izanen den manifestazioarekin hasiz.

Tzat Erramun

Patxi Petrirena • ERRENTERIA

Edo «I Erramun». Zur eta lur. Batek handia bota, bertzeak handiagoa bota nahi? Segi hola. «Gogorra, krudela eta tzat imperialistak ezin efectivoagoa». Otsailaren 14an, EGUNKARIAN. Ez nuen uste erraiten zuela aitoren semek gezurrik. Uste nuen egiazko euskara zenuela maite, zein-nahi ere dela haren idazmoldea, eta zinezko euskaratzat neukan zurea. Bat etorri edo ez; maiz ez. Baina beti irakurri ditut zure artikuluak, eta interesatu zaizkit. "Lehenago ere isuri odolak' an Atapuerca-ko (1054) eta Graus-ko (1063) bataillak". Beti irakurri ditut zure artikuluak; hemendik aitzina, ez dakit, Gerrikagoitia jauna. Osasuna.

montxo

galdeiozu... ?

NAGORE ARANBURU

Aktorea

‘Sorginen laratza’ telebistako saioan ez ezik, zein proiektutan zabiltza?

Irantzu Goñi (Iruñea)

Bi antzezlanetan nabil aktore lanetan: *Natatxa* haurrentzako antzezlanean eta *Murphy gainetik kendu ezinda* obran. Martxoan Hankagorri taldeak estreinatuko duen *Kutsidazu bidea, Ixabel*-en antzerkirako egokitzapena egiteko aukera ere izan dut. Oso gustura ibili naiz lan hori egiten eta emaitza ikusteko gogoz nago orain.

Otsailaren 18tik aurrera **Juantxo Lopez Uralde • Greenpeaceko Espainiako arduraduna** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.
galdeiozu@egunkaria.com

hirusta

Edu Zelaieta

2003ko otsailaren 15a...

Irakeko gerlaren aurkako eguna. Karrikarat jautsiko gara. Banderak hedatuko ditugu eta urratsez urrats aurreko lagunaren hatzetan ibiliko gara. Zapaldu gabe, haren ikurra begitartean hartu gabe, oihu zerbait eginen dugu, argazkilariek potretak tiratuko dizkigute eta kazetariek zenbatuko... Zenbait politikariren bulego, eta beste batzuen mapa geoestrategikoen gainean, kopuruz agertuko gara. Igandeko egunkarien tituluek ozenki jakinaraziko dute: «... hainbeste mila lagun Euskal Herriko kaleetan, Irakeko gerlaren aurka», eta azpitituluek: «Europan, beste... hainbeste ziren, eta nazioartean...». Jacques Chirac eta Gerhard Schroederen egoa handituko dugu. Ezen, zer galdegin gehiago, *jendarte zibilaren* sostengua baino? Estatu Batuek nahi duten gerla Irakeko petrolio merke bezain kalitatekoa ateratzeko da. Baina Frantziak, Alemaniak, Errusiak eta Txinak Irakeko petrolio-enpresak gerlatik begiratzea eta negozioa zaintzea dute xede. Eta gu, jendea, gaur karriketan, zertarako? Gerlari ez, frantses eta alemaniar petrolioari bai, esateko? Ala... funtsezko galdera ez ote dugu, ez behar bada gerra, baina bai petrolioa? Eta honek esku batzuetan metatzen dituen aberastasunak, eta botere faktikoa? Beraz, Total-Elf, British Petroleum BP, Exxon, Texaco, mundua odolusten eta indigenoak hondatzen ari diren artean, nolaz *gerla*-ren salaketan gelditu? Noiz gogoetatuko dugu, hondartzak sekulan berak izanen ez direla, airea, haziak, janaria, laborantza, bizia ere arriskuan direla ekartzen digun bizimoduaz? Milan Kundera frantses-txekiar idazleak sobietar aroko Maiatzaren Leheneko manifestaldiak deskribatzen zituen; itogarriak. Bide zuzenak hartzen dituen pentsamoldea, gurean gaur egun ere, isilarazia da.